




## *Dantzarixak txikurixan (1945 inguruan)*

**D**antza eta musikia beti egin dia gure herrixari lotuta. Gaur egunian be horretara dauan zaletasuna ez da makala. Herri gitxik mobiduko dabe guriak beste dantza talde, koru ta musikiari lotutako jende.

Aintxiña formau zian lehenengo dantza taldiak, bai andrazko zein gizonezkuenak. Askok dakate ondiñok akorduan zelan 1929. urtian, Eibarko zezenplazan inguruko dantza taldien lehiaketa baten, ermuarrak irabazi izan bihar eben. Baiña dantzia amaitzerakuan, alde batian bost ta bestian hiru geratu zian ta haretzek galdu erain zotsien. Txalorik haundiñak ermuarrentzako izan zian.

Dantzari ona izateko agilidadia bai bihar da, baiña belarri ona eukitzia inportantiaua da. Urte osuan zihar gogor preparau bihar izaten zan urtero euazen dantza emonaldixetarako.

Urtero urtero Mallabiko ta Ermuko ermintxetara juaten zan. Dantzan eitzen zan San Pelaixoko erromerixa egunian, Sallabenteko erromerixa egunian, Eitzan...

Santixauetan lau egunetan egoten zian dantzak, ta San Inaziuetan be plazara urtetzeko ohitxuria euan. Gero, Aiuntamientuak emondako diruaz urtian behin eskursiñu bat eitzen zan nunbaitxera.

Ermuak bere banderia be euki eban. Gerediagako

batzordia formatze eben herrixak bana eken.

Alkarri jositxako telazko trianguluekin eindako bandera hau dantza eitzen zanian etaratzen zan ta Berriz, Zaldibar, Mallabia, Ermua, Abadiño, Izurtza, Iurreta edo Garai identifikatzeko balixo eban.

Erretratua txikurixan etarata dao. Plazia ta zerkian artian (lehenako zerkia gaur Kantabria Zeharbide modura ezautzen dogu), bi arbola haundi euazen. Haretxen azpitan ipintzen zan txikurixa Santixauetan.

Aurreko astian subastara etaratzen zan ta zeñek onduen pagau haretzek ipintzen eban taberniori martxan.

Txistularixak: Luis Albizu, Moises Gorosabel.

Tanborilerua: Pedro Antxustegi.

Dantzarixak:

Tente, Jesus Arrizabalaga, Agustin Izagirre, Jose Antonio Olabarri, Dani Solozabal ta Victor Yarza.

Makurtuta, Miguel Solozabal, Iñaki Izagirre, Alexander Idigoras ta Josu Idigoras.

Erdixan, jarritxa, euren dantza erakustailia, Emeterio Intxaurrandieta "Barberua".